

Nafarroa Jesus Atxarekin bat eginik. Manuel Lekuona Saria 2003

Iruñea, 2004ko maiatzak 8a

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Sailaren egoitzan, Iruñean, maiatzaren 8an, 2003ko Manuel Lekuona Saria Jesus Atxa Agirreri emateko ekitaldi ospetsua egin zen.

Jesus Atxa Agirre euskaltzale eta euskal irakaskuntza zein kulturaren bul-tzatzaileak jaso zuen 2003ko Manuel Lekuona saria, euskaltzale honen obra osoa saritu asmoz.

Jesus Atxa 1920an jaio zen, Aretxabaletan, eta Durangon ikasi zuen Jesusen Konpainiarena zen San Jose ikastetxean.

1936an, Gerra Zibila piztu zenean, Belgikara joan zen. Bertan bere burua prestatzen jarraitu zuen ordena horretan sartzeko asmoz. Beranduago Kolonbia-ko Bogotara joan zen, nobiziatu berria ireki behar zutela eta. Hiri hartan, bertan behera utzi zituen jesuita ikasketak eta Filosofia eta Letretan lizentziatu zen, Universidad Javieriana delakoan. Ameriketara, Caracas hartu zuen bizileku, euskaldun ugari baitzen Venezuelako hiriburuan. 1945a arte izan zen Ameriketara, eta urte hartan sorterrira itzul-teea erabaki zuen.



Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Sailaren egoitza.

Etxera itzulita, Elorrión, Jesus Atxak Bizkaiko Aurrezki Kutxan lan egin zuen, eta parrokiako abesbatzako zuzendari izan zen. Bolada batean metalaren sektorean lan egin ondoren, hirurogeiko hamarkada hasieran, euskarazko eskolak ematen hasi zen

Elorrioko kooperatiba eskolan. 1964ean Bilbora joan zen, Edili euskararen aldeko kultura elkartearekin lan egitera. Handik aurrera ikastolak bultzatzeko lanei ekin, eta hauei eskaini zien Jesus Atxak ardura nagusia. 1970ean, Jorge Cortésekin Nafarroako euskal hezkuntza mugimenduko aitzindariak Iruñeko San Fermin ikastolako zuzendaritza eskaini zion, Atxak onartu eta kargu horretan jarraitu zuen 1984an erretiratu zen arte, euskara eta euskal kulturaren aldeko lan izugarria eginez.

Bizkaiko Ikastolen Federazioa sortu zuen 1978an, egun, Nafarroako Ikastolen Federazioaren laguntzaile iraunkorra eta Euskaltzaindiko Ohorezko kidea da Jesus Atxa. Eta orain, Manuel Lekuona Saria jaso duenetako bat.

Manuel Lekuona Saria, Eusko Ikaskuntzak sortu zuen 1983 urtean, euskal kulturako pertsonalitateak ohoretzeko, hauen lan osoak (opera omnia) interes nabarmena duenean. Aurreko 20 edizioetan saritutakoen artean Jorge Oteiza, Miguel María Azola, Justo Garate, Bernardo Estornés, Carlos Santamaría, José M^a Jimeno Jurío, Eugene Goyheneche, edo Manuel Lekuona bera daude. Saria, Remigio Mendiburuk egindako brontzezko eskultura batek eta saridunaren bibliografiaren argitarapenek osatzen dute.

2003ko Manuel Lekuona Saria Jesus Atxari emateko ekitaldia 2004ko maiatzaren 8an egin zen, Iruñean, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Sailaren egoitzan, nafar kultura, politika eta gizartearen ordezkari ugari bertan zirela.



Xabier Retegi, Miguel Sanz eta Sixto Jiménez.

HEZKUNTZA SISTEMA LIBREA, ERRESPETUZKOA, ETA ZABALA

Sixto Jiménez, Nafarroako Eusko Ikaskuntzako Lehendakariordea izan zen hitz egiten lehena. Jesus Atxaren hezkuntza sistemaren eragile diren balio nagusiak aipatu zituen eta gizarte eta familiaren egonkortasun ezaren ondorioz balio handiago hartzen dutela azpimarratu. Jesus Atxak hezkuntza sistema librea, errespetuzkoa, eta zabala sortu zuela azpimarratu zuen, formazio eta ez informazio hutsa helburutzat dituen. Gainera, Atxaren seriotasun, sendotasun, indar eta konstantzia azpimarratu eta balore hauek egungo gizartearen duten garrantzia azpimarratu zituen.

Ondoren, Enrike Díez de Ulzurrun kazetariari egokitu zitzaion sarituaren irudia goratzea, haren bizitzaren azalpen labur baten bidez, Díez de Ulzurrunek azpimarratu zuenez euskal gizartearen Atxak egin zuen bezalako lanaren zain zegoen:

“Orobat esan daiteke ikastoletan eginiko lanari buruz. Zenbat bidaia, zenbat jira-bira, zenbat errepide ez ote dituen eginak herriz herri, bileraz bilera, gora eta behera, ezker-eskuin, Bizkaian eta Gipuzkoan barrena, 60ko hamarkadaren hasieratik aurrera. Gure gizartearen ez zegoen lo. Zain zegoen eta prest. Alegia, bazterrez bazter ibiliko ziren antolatzaile nekagaitzen zain, eta prest Jesus Atxa bezalako lasterkariak proposatutakoa entzun eta aurrera jotzeko. Horra gure gizartearen zeru sabaian agertu ziren lehen argi txintak...”.

ELKARRIZKETARAKO GAITASUNA

Eusko Ikaskuntzako lehendakari den Xabier Retegik Atxaren asmoen zabaltasuna eta elkarrizketarako gaitasun handia nabarmendu zituen bere hitzaldian. Gainera, Jesus Atxak euskararen defentsan aritzeagatik bizi behar izan zituen une txar, larrialdi, zailtasun, eta estuasunak gogoratu zituen, guzti hori helburu garbi batekin: *“euskarari hizkuntza biziaren duintasuna eskaini behar zitzaion, eta hori ez zen erronka makala, era guztietako oztopo eta eragozpenen erdian”*.

Jesus Atxak lortutako guztia, Eusko Ikaskuntzako Lehendakariak esan zuenez,

“euskal kulturarentzako lehentasuneko uste sendoa oinarri harturik, uste sendo hori sentiberatasun politiko guztiekin hitz egiteko gaitasun handian kokatuz, soluzioak bilatuz eta euskararen defentsa ideologien gainetik ezarritu lortu du”.

Jesus Atxak berak bere bizitzaren eta euskararen aldeko borrokaren pasarte batzuk oroitarazi zituen, zenbait pasadizo dibertigarriekin argituz, eta bere egitekoan lagundu zuten pertsonen esker ona adierazi zien.

“Hamarkada horretan Euskal Herri osoan jotzen zuen haize nahasien zurrunbiloak harrapatu sentitzen nuen nire burua; harat-honat eramana edo batzuk ziotenez, “erabilia”. Haizeari hegoak zabaltzea besterik ez zen behar orduan, parapentean botatzea zen.

1970 urtean, eskualdez eskualde eta herriz herri ikastolaz pikardatua agertzen zen Euskal Herriko mapa. Hasieran ezerezeko miserian, tekla asko jotzea tokatzen zitzaion bakoitzari eta “eltze guztietako burruntzali” ibili beharra izan zen nolobait esanda nire ofizioa ere.

Ikastola inguruan egitekorik asko pilatzen zen”.

eta horri ekin zion Jesus Atxak. Bidean oztopo ugari aurkitu, eta lana gogor egin zuen arren, Atxak ikastolak sortzea baino mantentzea gogorragoa izan zela azpimarratu zuen, horretarako adibiderik ere eman zuen:

“Kultur talde batek bultzaturik, Aste kulturala antolatu zen Lesakan. Hitzaldi baten ondoren, entzuleek alde egin eta gizon bakar bat gelditu zen aretoan txortxorrean lau emakumekin:

– Zenbat ume behar da ikastola irekitzeko? (1974) galdetu zidan Oiarzabal deituriko batek (Bidasoa kamioien txoferra)

– Nik fanfarroi samar. – Bat aski da!

– Ba... apuntatu ezazu nirea.

Eta emakumeez atzetik... eta nirea, eta nirea. Seik eman zioten ikastolari hasera”.

Atxak, Nafarroako Gobernuako Presidentea ekitaldian egon izana eskertu nahi izan zuen, eta adierazi zuen ez zuela pentsatu nahi bertan egotea keinu bat besterik zenik, baizik eta Miguel Sanz ekitaldian egoteak Nafarroako errepide estuak euskarentzako autobide zabal bihurtzeko nahia adierazten zuela adierazi zuen.

Bertso batekin bukatu zuen Atxak bere hitzaldia, bertan adierazi zuen Ikastolak egun duten igoera ikusita nahikoa sari jasoa duela, eta beste hainbeste egingo lukeela orain ere beharrik balego. Gainera, urteetan zehar egindako lanean lagundu izan dioten guztiei eskerrak eman zizkien, eta esker berezia eman zion bere emazteari, bere ondoan egoteagatik.



Jesus Atxa eta Miguel Sanz.



Jesus Atxa.

EUSKARA NAFARROAREN NORTASUNAREN ERRO

Azkenik, Miguel Sanz, Nafarroako Foru Komunitateko Presidenteak adierazi zuen euskal hizkuntza eta kultura nafar nortasunaren erroetako bat direla:

“Euskal hizkuntza eta kultura, Nafarroa libre eta pluraleko gure nortasun eta ondare komuneko erroetako bat dira. Jesus Atxak jaso berri duen saria kultura propio eta kultura unibertsalaren arteko erlazioaren sinbolo egokia dira”.

Nafarroako Foru Komunitateko Presidenteak gaineratu zuen:

“Jesus Atxa zoriondu nahi dut, merezitako Lekuona Saria jasotzeagatik. Zoriondu egin nahi dut, konstantzia, iraunkortasun eta uste osoengatik, eskuzabaltasun eta besteengatik gorputz eta arima lan egiteagatik, bereziki bere lan hezitzaile eta kultur zabalkunde lanagatik, horrek gura gizartea nabarmen aberastu baitu”.

Hitzaldia amaitzeko, Miguel Sanzek adore eman nahi izan zion Eusko Ikaskuntzari:

“Bere jarduera guztietan kulturari eta zientziari dagokien jarrera ireki eta unibertsal horri eutsi diezaion, gaurko eta etorkizuneko munduarentzat gero eta premiazkoagoa den jarrera horri”.

Aitziber Salinas